



98/2016 EBAZPENEA, martxoaren 17koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Honen bidez, 2016ko martxoaren 7ko 80/2016, 81/2016, 82/2016, 83/2016, 84/2016, 85/2016, 86/2016, 87/2016 eta 88/2016 Ebazpenetan aurreikusitako ekintzak egiteko epea handitzen da. Ebazpen horien bidez agintzen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzea 2014-2015 EPEan deitutako kategorietan pertsonal estatutarioa izateko hautatze-probetako oposizioaldian gainditutako zerrenda, puntuazioaren arabera.

2014-2015 EPEko hautatze-prozesuaren parte hartzaile guztiek izapideak egiteko beharrezko bermeak izan ditzaten; hots, deitutako kategorietan gainditu dutenen zerrenda jasotzen duten Giza Baliabideetako zuzendariaren Ebazpenetan jasotako izapideak egiteko, egokia iruditu zaigu horretarako epea handitzea 2016ko martxoaren 23ko 14:00ak arte.

Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen 49. artikulua ezartzen du Administrazioak ofizioz edo interesdunak eskatuta luzatu ditzakeela ezarritako epeak, kontrako agindurik ez dagoen bitartean, ezarritako epeen erdira arte gehienez, betiere zirkunstantziak hala eskatzen badute eta hirugarren baten eskubideak kaltetzen ez badira.

Azaldutako guztiagatik, hau

EBAZTEN DUT:

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren 2016ko martxoaren 7ko 80/2016, 81/2016, 82/2016, 83/2016, 84/2016, 85/2016, 86/2016, 87/2016 eta 88/2016 Ebazpenetan aurreikusitako ekintzak egiteko epea handitzea 2016ko martxoaren 23ko 14:00ak arte.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko martxoaren 17an.



Jose María Armentia Macazaga
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendaria,

JOSE MARÍA ARMENTIA MACAZAGA.